

2014-02-25eko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamalaugarren urteko otsailaren hogeita bosteko, arratsaldeko 18:00ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez den EAJ/PNV udal-taldeko zinegotzia: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-01-28).

2014ko urtarrilaren 28ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2014ko 14. zenbakitik 31. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONETAKO 2014KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA.

Udalaren Aurrekontu Orokorraren berri eman da. 2014ko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza kontuhartzaileak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua betearazteko udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Gainera, kontuan hartzen dira Aurrekontuen eta Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak eta kontu-hartzailearen txostenaren arabera betetzen dituela.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, gaur egindako bileran, aldeko onarpena eman dio.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

ERABAKIA

Lehena.-Onartzea 2014rako gastu ez finantzarioaren muga: 1.942.147,78 euro.

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2014 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarrereren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	576.000,00
2	Zeharkako zergak	8.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	238.000,00
4	Transferentzia arruntak	972.000,00
5	Ondarezko sarrerak	18.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	0,00
7	Kapital transferentziak	50.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00

9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		1.864.000,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	734.700,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	561.400,00
3	Finantza-gastuak	1.000,00
4	Transferentzia arruntak	263.800,00
6	Inbertsio errealak	227.100,00
7	Kapital Transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		1.864.000,00

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

Honela, 2014ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Gainera, aurrekontua gauzatzeko oinarri eta arauak ere onartu dira.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapide-egintza (tramite-egintza) soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2014KO PLANTILLA ORGANIKOARI ETA LANPOSTUEN ZERRENDARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

2014ko Aurrekontuarekin batera 2014ko Irura Udaleko langileen plantilla eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztu da.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko informazio batzordeak, aldeko proposamena egin dio, gaur egindako bileran.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena aztertuta.

Hori kusita udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Behin behineko onarpema ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Udal Aurrekontuarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, erreklamazioak egin ahal izateko.

Onartutzat joko da espedientea, erreklamaziorik ez bada aurkezten argitaratuko epean.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

2014RAKO UEMAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2013ko abenduaren 14an, Zumaian egindako UEMA-ren Batzar Nagusian onartu ziren 2014rako kuotak. Irurari 6.408 euroko ekarpema egitea dagokio, 1501-2000 biztanle kopuruaren tartea sartzen delako.

Euskara Batzordea Informatiboak, 2014ko otsailaren 18an eginiko bileran, aldeko proposamena erabaki zuen.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

1.-2014 urteari dagokion ekarpema onartzea (6.408 €) eta ordainketa aldi bakar batean egitea.

2.-Gastua 1.0000.421.420.00.00.2014 partidaren kontura izatea.

3.-Erabakia euskara teknikariari eta interesatuei jakinaraztea.

Akordio hau behin betikoa administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

EH BILDUREN MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH Bilduren martxoaren 8ko adierazpena, aurkezten da:

“EHBilduren martxoaren 8ko adierazpena

EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA

Martxoaren 8a hurbiltzen ari zaigu urtero bezala, Emakumeon Eguna. Urteetako borrokak gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina , batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.

Krisiaren itzalpean harro dabilzkigu kapitala eta patriarkatua, lotsarik gabe, mozorroa kenduta. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara, atzeraka goaz. Inboluzio une batean gaude. Historia lineala ez denez, ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da ezinbestekoa, aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.

Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian bandera espainola ezarrita (Estatuaren lurralde bihurtuta) eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexualaren hautua egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta: gaiztoak, gaixoak, sorginak eta eroak omen.

Lan-merkatuan gero eta biluziago gaude emakumeok. Botere ekonomikoaren mesedetan arautzen ari da lan-mundua, lanerako gorputza, burua eta eskuak besterik ez ditugunok babesik gabe utziz. Haurdun dauden emakumeak kaleratzeko aukera'legeztatu da, lan baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeak nagusi diren hirugarren sektorean bereziki, eta sektore feminizatuetan behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta prekarietatea dira nagusi. Horrekin batera, lan-merkatutik kanpo uzten ditugun etxeko lanak eta zalantza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute. Ez hori bakarrik; erakunde publikoak, pertsonen zaintza luxua dela baloratuta, horretarako dauden zerbitzuak eta laguntzak murrizten ari dira eta, ordainetan, emakumeon zaintzaren motxila kargatzen. Biluzik eta gero eta motxila handiagoarekin gabiltza.

Biluzik gabiltzan arren, gure gorputza ere ez digute guretzat utzi nahi. Gure gorputza gurea dela ukatu nahi digute. Gure umetokia Estatu-arazoa dela diote baina gaude beraientzat arazoa, azken finean, emakumeak garela. Abortatzeko eskubidea ukatzeko Espainiako Gobernuak aurkeztu duen kontrarreformarekin, duela 40 urte oihukatutako aldarriak berriz etorri. zaizkigu umetokietatik eztarrietara. Posible da lan-merkatuak ume gehiago

nahi izatea langabezia-poltsak handitzeko, langabeziaren mehatxupear langileak otzantzeko, beldurra areagotzeko. Baina, batez ere, motibazio ideologiko ultrari erantzuten dio; emakumeok ama-emazte izan behar dugun ideologiari, hain zuzen.

Abortuaren kontrarreformarekin batera, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago datoz, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzeko neurriak dira. Ugalketa lagundurako eskubidea bikote heterosexualentzat soilik, haurdun geratzen den emakume oro haurra izatera behartu, norberaren gorputza eta desioak ezagutu eta garatzeko hezkuntza afektibo-sexuala murriztu edo LOMCerekin guztiz ezabatu, elizgizon esanguratsuen ahotik sexu bereko pertsonen arteko harremanak gaixotasun gisa aurkeztu nahi dizkigute, eta indarkeria sexistaren dimentsioa ezkutatu, garrantzia kenduz, datuak makilatuz (indarkeria sexista gisa kontabilizatuko direlako soilik eraildako emakumeak eta 24 orduetik gora ospitaleratutakoak) eta batzuetan justifikatuz.

Erakunde publikoek eta hedabideek horretan duten ardura ez da txikia.

Emakume eta gizon askeak, buru- eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua ondo dakitenez, LOMCerekin hezkidetzaren bidean egindako lana ezabatu nahi du Espainiako Gobernuak. Berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egindako lana alde batera utzi eta erlijio katolikoa jarri nahi du erdigunean. Elizak eta Estatuak eskua emanda sartu nahi dute eskoletan, haurren gogoak kolonizatzeke.

Hedabideetan ere atzerakada garrantzitsua atzematen dugu eta bereziki larria iruditzen zaigu bertako hedabide publikoetan gertatzen ari dena. Aktualitateko arazoen inguruko eztabaida eta tertuliatan emakumeon presentzia anekdotikoa da. Ez dugu ahotsik. Ikusezinak gara. Horretaz gain, hedabideetako edukiek eta publizitateak estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Egoeraren irakurketak alarma guztiak piztera garamatza. Feministok urteetan aldarrikatutako eta borrokatutako helmuga gero eta urrunago dago eta inboluzio lazarria sufritzen ari gara. Emakumeok subjektu politiko gisa, eskubide osoko herritar gisa onartzetik gero eta urrunago gaude. Egungo krisia emakumeon askatasunen eta berdintasunaren krisia ere bada. Ez orain arte helburuok lortu genituelako baina bai atzerapauso nabarmenak ematen ari garelako. Ez halabeharrez, ordea; botere politikoek eta ekonomikoek norabide horretan eraman nahi gaituztelako baizik. Emakumeok berriro ere sistema heretropatriarkalaren kaiolara lotu nahi gaituzte.

Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Betaurreko eta lupa moreak jantzi, elkarri eskua eman eta atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egiteko prestatu behar dugu. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Jostun onen moduan, jos ditzagun emakumeon

arteko sare sendoak. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru guztietan, esparru sozio-ekonomikoan, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezkerretik eraikitzeko.

Gaur, 2014ko martxoaren 8an, EHBilduk Euskal Herri feministaren helburua bere egin eta borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du. Gure zeregina da mugimendu feministarekin batera orain arteko borroken lekukoa hartu eta borroka horiei eustea, gure zeregina da erdi lo genituen borrokak berpiztea, lortutzat genituen eskubideak uste baino errazago gal ditzakegulako, eta gure zeregina da mugimendu feministak irekitzen duen bidea jarraitzea, pausoz pauso, orpoz orpo.

Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean. Jakitun gara jendartea eraldatzeak gure buruak ere eraldatzea esan nahi duela eta, jakitun gara, barne-mailan gauza asko ditugula oraindik lantzeko. Ez gara jendartetik isolatutako erakunde bat eta guk ere ikasi eta landu beharreko alderdi asko ditugu oraindik. Bada, kanpora begira egingo dugun lanaz gain, etxe barruan ere eraldaketa feministaren bidean lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.”

Hori ikusita udalbatzak aho batez mozioa onartu du.

ZAZPIGARREN GAIA

GURE ESKU DAGO ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gure Esku Dago mozioa aurkezten da:

"Idatzi honen bitartez Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela aldarrikatu nahi dugu. Erabakitzeko eskubidea gizarte sano/osasuntsu bat eraikitzeko oinarri demokratikoa da, eta herri honetan, Euskal Herrian bizi garen herritar guztioi dagokigu; eskuindar zein ezkertiar, abertzale izan edo ez. Edozein pentsamendu, sentsibiltate, nazionalitate edo kolore izanda ere, euskal herritarroi dagokigu erabakia hartzea. Oinarrizko eskubide honek batzen gaitu.

Euskal Herria osatzen dugun herritarron aniztasunaz baliatu nahi duen herri ekimen honek, herritar oro, eragile, zein instituzio ezberdinen babes bilatzeko asmo irmoa du. Bide honetan gure herriko Udalbatzaren sostengua herri dinamika hau bultzatu eta herritarrak aktibatze behar beharrezko den ekimenaren zati kontsideratzen dugu. Euskal Herriaren Erabakitzeko eskubidea gai oso garrantzitsua da edonola jarduteko eta guztiz beharrezkoa da guztion babes.

Herritarron aktibazioa martxan da. Gure arduren jabe egin, eta eskubide hau gauzatzeko aldarria egitea dagokigu. Lan horretan, Tolosaldean ere lanean hasiak gara Euskal Herriko eskualde guztietan bezalaxe. Lan horren erakusle

da ideia honen inguruan Tolosan kultur, kirol nahiz beste hainbat arlotako pertsonai ezagunak bilduz atera zen argazkia.

Badira atxikimendua adierazteko aukera gehiago herri, eskualde eta Euskal Herri osoan zehar. Idatzi hau bitarteko, Irurako Udalbatzari Gure Esku Dago ekimenetarako diru-laguntza bat eskatzen diogu.

Eskubide honen aldeko ekitaldi garrantzitsuena Ekainaren 8an Durango eta Iruña batuko dituen 123 km-ko giza-kate erraldoia izango da. Ekimen puntuala izanik, Tolosaldeko Gure Esku Dago taldeak dituen diru sarrerak sinbolikoak dira (pegatinak, rifak, zapiak). Kontutan hartu hau guztia antolatzeke pertsona eta diru errekurtsio handiak behar ditugula, eta guztiz beharrezko dugula zuen ekarpena. Eskertuko genuke biztanleko 10cent sartuko bazenigukete ondorengo kontu korrante zenbakian:

IBAN: ES62 3035 0046 7504 6005 5695

BIC: CLPEES2M (Laboral Kutxa)

Hartu Hitza Kultur Elkartea

Kale Nagusia, 47 bajua

20213 Idiazabal

G20989992

Bide batez, guztiok parte hartu eta bertan izateko gonbidapena luzatzen dizuegu, guztion artean lortuko baitugu!

GURE ESKU DAGO.”

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez mozioa onartu du.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da ,presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO GARAPEN IRAUNKORREKO UDAL ZARBITZUAK S.L. ARTEAN HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTZEA.

2011ko abenduaren 11ean Irurako Udala eta Tolosaldeko Garapen Iraunkorreko Udal Zerbitzuak S.L. artean Tolosaldeko Udalerrien Tokiko Agenda 21aren jarraipenerako eta Tokiko Ekintza Planen sustapenerako sinatutako hitzarmenaren baitan, 2014. urtean Irurako Udalak iraunkortasun teknikari partekatua jarraitzeko konpromisoa hartzen du eta hitzarmenak jaso bezala, 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte jasotako zerbitzuaren ondorioz, 8.828 € + 1.853,88 € (BEZ). Denera: 10.681,88 €, ordainduko dituela.

Udalbatzak aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

- 1.-Hitzarmen hori onartzea.
- 2.-Baimena ematea Alkateari hitzarmena sinatzeko Udal honen ordezkari.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da ,presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

BEDERATZIGARREN GAIA
UDALBILTZA PATZURGOAREN 2014. URTEKO EKARPENA
ONARTZEA.

Udal hau Udalbiltza Partzuergoaren kide da eta jakinarazi du 2014 urteari dagokion ohiko kuota 3.000 eurokoa dela.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA.

Ekarpen hori onartzea eta ordaintzea.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIATZATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA